




# ESNEAREN KOLOREKOA

Egilea: Nell Leyshon  
Zuzendaria: Fernando Bernués

# SINOPSIS

Mary, bere familiarekin 1830eko nekazal giroko Ingalaterrako baserri batean bizi da. Ilea esnearen kolorekoa du eta hanka batean arazo fisikoa zuela jaiotzen. Baina, familiaren kondetatik ihes egitea lortzen du, bikarioaren emaztea zaintzeko neskame gisa lan egitera bidaltzen dutenean. Orduan izango du irakurtzen eta idazten ikasteko aukera. Liburuetan «marra beltz pila bat besterik ez» ikusteari utziko dio. Itzalen mundua uzten duen heinean, argiak are itsugarriagoak izan daitezkeela ohartuko da, eta horregatik, Maryri bere istorioa kontatzeko ahalmena baino ez zaio geratuko.

Leyshonek, edertasun tragiko batez, mikrokosmos ikaragarri bat irudikatu du, pertsonaia bereziz betea; hori guztia, urtaroen eta baserriko lanen konpasean isurtzen den ingurune bukoliko batez inguratua, eta Maryren ahaleginari esker, inozentzia urragarriz bizia hartuko du, hartutako patuari buruzko testigantza idatzi bat utziz uko egiteko aukerarik gabe.



**ESNEAREN KOLOREKOA**

Nell Leyshonek egokitua  
Esnearen Kolorekoa eleberrian oinarritua

# FICHA ARTÍSTIKOA

---

Egilea, egokitzapena

**NELL LEYSHON**

Zuzendaria

**FERNANDO BERNUÉS**

Itzulpena

**AIZPEA GOENAGA**

Antzezleak

**JOSEBA APAOLAZA**

**MIREN ARRIETA**

**MIREIA GABILONDO**

**AITZIBER GARMENDIA**

**JON OLIVARES**

**JOSE RAMÓN SOROIZ**

Eszenografia

**FERNANDO BERNUÉS**

Jantziak

**IKERNE GIMÉNEZ**

Argi diseinua

**DAVID BERNUÉS**

Teknika

**ACRÓNICA PRODUCCIONES**

Administrazioa

**MAITE GORROTXATEGI**

Ekoizpen exekutiboa

**ANE ANTOÑANZAS**

Ekoizpena

**PAOLA EGUIBAR**

Banaketa

**PORTAL 71**

---



## EGILEA

Nell Leyshon Glastonbury-n jaio zen (Ingalaterra). Eleberrigile eta antzerkigile gisa sari ugari jaso ditu. Bere lehen eleberria, *Black Dirt* (2004), Orange Prize for Fiction sarirako hautagaia izan zen, eta Commonwealth Book Prize delakorako aurrehautatua. 2008an *Devotion* argitaratu zuen. *Comfort Me With Apples* antzezlanagatik Evening Standard Theatre saria jaso zuen. *Bedlam* izan zen Shakespeare's Globe Theatre-rako emakume batek idatzitako lehen lana. Gainera, Richard Imison saria jaso zuen BBC Irratirako idatzi zuen lehen antzezlanagatik. Esnearen Kolorea 2014ean Frantzia itzulitako libururik onenaren Femina sarirako hautatua izan zen, eta Madrilgo Liburu-saltzaileen Gremioak 2014. Urteko Liburuaren saria eman zion.



## ZUZENDARIA

Fernando Bernués Gambarte (Donostia, 1961), Tanttaka Teatroa eta Tentazioa Produkzioak taldeen sortzaileak arrakasta handia izan du antzerkiaren, zinemaren eta telebistaren munduan. Besteak beste, Kutsidazu bidea, Ixabel eta Soinujolearen semea dira zinemarako lanak, eta telebistan Maite, Ertzainak, Mi querido Klikowsky eta Mugaldekoak telesail ezagunak zuzendu ditu. Ibilbide luzea eta ezaguna du, eta, gaur egun, arte eszenikoen erreferente da. Besteak beste, honako lan arrakastatsuen sortzailea gainera: El Florido Pensil, Novecento el pianista del océano, Paradero Desconocido, La dona justa, Ipar Haizearen kontra, Soinujolearen semea, Muxua, Uda gaueko ametsa (Donostia Europako Kultur Hiriburutzaren proiektu nagusia), Soka, Sísiforen paperak edo Semea pixka bat motelago dabil soilik.


# ANTZEZLEAK



**AITZIBER  
GARMENDIA**



**JOSEBA  
APAOLAZA**



**JOSE RAMÓN  
SOROIZ**



**MIREN  
ARRIETA**



**MIREIA  
GABILONDO**



**JON  
OLIVARES**







# TANTTAKA

teatroa

*Euskadi, auzolana*

